



# FP

## OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA OLH

**EUSKO JAURLARITZA**  
HEZKUNTZA, SAILA  
Lanbide Heziketako Sailburuordetza



**GOBIERNO VASCO**  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Formación Profesional



Europako Gizarte Funtza  
“EGIF-ek zure etorkizunean inbertitzen du”

Euskal Autonomia Erkidegoak, **Europako Gizarte Funtsaren** bidez, Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak **finantzatzen ditu**; ziklo horiek **titulartasun publikoko ikastetxeetan eta hezkuntzako eskumenen delegazioko udal ikastetxeetan** ematen dira eta ezaugarri hauek dituzte: % 50eko koofinantzazio-tasa, 3. Ardatzaren barruan, 10.1 Inbertsio-lehentasun, Enplegu, Prestakuntza eta Hezkuntzarako Programa Operatiboa 2014-2020ko 10.1.1 Helburu Espezifikoa

- ❖ [127/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa](#), hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen **Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzekoa**, hamalau oinarrizko lanbide titulu onartzekoa, horien oinarrizko curriculumak finkatzekoa eta hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademikoak eta profesionalak emateari eta ezartzeari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzekoa.
- ❖ [356/2014 Errege Dekretua, maiatzaren 16koa](#), Lanbide Heziketako ikasketen tituluen katalogoko **Oinarrizko Lanbide Heziketako zazpi titulu ezartzen dituena**.
- ❖ [774/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa](#), Lanbide Heziketako ikasketen tituluen katalogoko **Oinarrizko Lanbide Heziketako sei titulu ezartzen dituena**.
- ❖ [562/2017 Errege Dekretua, ekainaren 2koa](#), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko gradudun-tituluak lortzeko baldintzak arautzen dituena, Hezkuntza hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Legea ezartzeko zehaztutako egutegia zabaltzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 9ko 5/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- ❖ [86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa](#), EAEn Lanbide Heziketa antolatzeari eta ezartzeari buruzkoa.
- ❖ [104/2016 Dekretua, uztailaren 7koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan emango diren Oinarrizko Lanbide Heziketako hogeitun tituluren curriculumak ezartzekoa.
- ❖ [AGINDUA, 2017ko maiatzaren 5koa](#), Hezkuntzako sailburuarena; honen bidez, **2017-2018 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduek eskaintzen duten hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako zikloetan izena emateko eskaerak aurkezteko epea, onartzeko epeak eta matrikularenak biltzen dituen egutegi komuna ezartzen da**, eta zentro horietan onartua izateko eta matrikula egiteko jarraibideak onesten dira, hezkuntza hori eskaintzen duten zentro guztietan eskaerak grabatzeko eta matrikula egiteko irizpideak onesteaz gain.

*86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa, EAEn Oinarrizko Lanbide Heziketa antolatzeari eta ezartzeari buruzkoa.*

Ikasketa horietan matrikulatu nahi den ikasleak **betekizun** hauek bildu behar ditu batera **(16. artikulua: D86/2015):**

**15 urte edukitzea eta 17 urte baino gehiago EZ edukitzea sartzeko momentuan, EZTA dagokion urte naturalean ere ez**

**+**

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila edo DBHko 2.a egina (salbuespenez)**

**+**

**Hezitzaile-taldearen proposamena + orientazio-aholkua**

**(17. artikulua)** Bete beharreko irizpideak, eskaera eskaintza baino handiagoa bada:

*EAEn eskolatutako ikaslea edo DBHko azken mailan erkidego honetan eskolatutakoa. Baita hauek ere:*

- .- DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasi duena eta 17 urte dituen (\*)
- .- DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasi duena eta 16 urte dituen (\*)
- .- DBHko 3. mailara arte ikasi duena eta 15 urte dituen (\*)
- .- DBHko 2. mailara arte ikasi duena eta 16 urte dituen (\*)
- .- DBHko 2. mailara arte ikasi duena eta 15 urte dituen (\*)

\*Lehentasuna: batez besteko nota onena (2017ko maiatzaren 5eko Sartzeko Agindua, 7. jarraibidea)

*Urte honi dagokion Onartzeko Agindua: (2017ko maiatzaren 5eko Onartzeko Agindua)*

Onarpen-egutegia

“*Ontzi bakarra*”: sartzeko betekizunak biltzen dituzten eskaera guztiek plaza eskatu behar dute, ezinbestez, horretarako *ad hoc* sortutako aplikazioaren bidez. Horrela egiten ez bada, ikasle horiek adjudikazio sistematik kanpo geratuko lirateke.

**Ezohiko matrikula**, Onartzeko Aginduan zehaztuta. 2017-2018ko ikasturteak urriaren 13ra iraun du. **Egun horretatik aurrera EZ da matrikula-eskaera berririk onartuko.** Atzerriko ikasle etorri berriak barne

*Aniztasunari arreta emateko neurri metodologikoak* (86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa, 13.2 artikulua)

❑ Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak curriculumean sartzeko egokitzapenak (zentzumen-desgaitasuna: ikasle gorrak edo/eta ikusmen-desgaitasuna duten ikasleak) lanbide-modulu batzuetan, heziketa-zikloko helburuei **etsiz betiere**. Era berean, curriculuma malguagoa egiteko aukera aurreikusi da

## ❑ Taldeak osatzea

➤ 15 ikasle baino gehiagoko eta 20 ikasle baino gutxiagoko matrikula aurreikusten duten zentroek handitze hori eskatu beharko diote Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari. Ez da onartuko aipatu handitzerik aldeztu aurreko baimenik izan gabe. (86/2015 Dekretua, 26.2 artikulua)



- ❑ Ikasleak 2. mailara igaro ahalko da, gainditu gabeko (konpetentzia-unitateekin lotzen diren moduluen) ordu-kopurua ez bada guztizko ordu-kopuruaren % 20 baino handiagoa; horrez gain, **bloke komunei loturiko moduluetakoko bat gainditu beharko du.**
- ❑ Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloa **gehienez lau urtetan** egin ahalko da; salbuespenez, 5 urtetan egin dezakete premia bereziak dituzten ikasleek (zentzumen-desgaitasuna: ikasle gorrak edo/eta ikusmen-desgaitasuna duten ikasleak)
- ❑ Ikasturte bakoitza **behin baino ez da errepikatuko**. Salbuespen gisa, bi ikasturteetako bat bi aldiz errepikatu ahal izango dute, irakasle-taldeak horren aldeko txostena egin ondoren. Horrela jokatu da hauek errepikatuz gero:
  - **Lehen kurtsoa:** modulu guztietan matrikulatuko da eta lanbide-modulu guztietan ebaluatuko zaio (baldin eta ordu-kopuruaren % 50 edo gehiago irauten badu).  
**Ez** badu irauten ordu-kopuruaren % 50, gainditu gabeko moduluetan baino ez da matrikulatuko.
  - **Bigarren kurtsoa:** **gainditu gabeko lanbide-moduluetan** matrikulatuko dira bakarrik (baldin eta ordu-kopuruaren % 50 edo gutxiago irauten badu).  
Guztizko ordu-kopuruaren % **50 baino handiagoa** bada, kurtsoa osorik errepikatu beharko du.

- ❑ **Zuzeneko moduluak:** LAU deialdi, sei gehienez, baldin eta premia bereziren bat behar duten ikasleak badira. **Ikasturte bakoitzeko BI deialdi** edukiko dituzte ikasleek, ohikoa eta ezohikoa.
  
- ❑ **Lantokiko prestakuntzako moduluak:** BI deialdi, zeinak ikasturte berean edo beste batean izan baitaitezke, kontuan hartuta noiz erabakitzen den ikaslea igotzea.

**Ikasturte berean, deialdi BATI edo BIRI egin diezaiekete uko ikasleek (ohiko deialdia eta ezohikoa), egoera hauetakoren bat gertatuz gero betiere:**

1. ikaslea gaixo egotea edo ikasleak istripu bat izatea
2. betebeharrak pertsonalak eta/edo familia- edo lan-arlokoak.

Hori guztia behar bezala egiaztatuko da beti.



Ebaluazioa **JARRAITUA**, hezigarria eta integratzailea da.

❑ Ikasleak eskatu beharko du **matrikula deuseztatzea** abenduaren 29a baino lehenago eta **justifikatutako arrazoi** hauetakoren bat gertatzen bada betiere:

- Gaixotasun luzea
- Ikasketarako dedikazio normala eragotziko duen lanpostu batean hastea
- Ikasketarako dedikazio normala eragotziko duten obligazio pertsonalak edo familiarrak izatea
- Eskabidea helarazi den ikastetxeko zuzendariak aintzat hartutako beste ezohiko zirkunstantzia batzuk (*Onartzeko Aginduaren 17. jarraibidea*)

❑ **Eskoletara egindako hutsegiteengatik**, ebaluazio jarraiturako eskubidea gal dezakete ikasleek, baina ezohiko ebaluaziorako eskubidea dute.



- ❑ Lantokiko prestakuntza egingo da zehaztutako lanbide-moduluetan ebaluazio positiboa dagoenean (konpetentzia-atalekin lotuta dauden moduluak eta LPO (Laneko prestakuntza eta orientabidea))
- ❑ Oinarrizko lanbide heziketako zikloa osatzen dituzten modulu guztiak gainditu eta gero, ikasleak dagokion prestakuntzaren oinarrizko lanbide titulua eskuratuko du.
- ❑ Oinarrizko lanbide-tituluak erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko aukera ematen du.
- ❑ Oinarrizko lanbide tituluak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua eskuratzeko aukera ematen du, baldin eta irakasle-taldeak uste badu DBHko helburuak lortu direla.

1. Oinarrizko LHko zikloetako ikasleen azken ebaluazioa egiteko prozesuan, prestakuntza-zikloa osatzen duten modulu guztietan ebaluazio positiboa lortzen duten pertsonak proposatu behar dira dagokion oinarrizko lanbide-titulurako, dagokion arautegiak ezartzen duen eran.
2. Azken ebaluazioa egiteko saioan bertan, irakasle-taldeak erabakitzen badu ikasleren batek lortu dituela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak eta eskuratu dituela DBHko etapari dagozkion gaitasunak, DBHG titulua eskuratzeko proposamena egin ahal izango du. Horretarako, oinarrizko LHko heziketa-zikloaren 2. mailan irakasten ari diren irakasleen aldeko iritzia izan beharko da, bi hereneko gehiengo kualifikatuarekin gutxienez. Edonola ere, nahitaezkoa izango da aldeko iritzia duten irakasleen artean egotea Zientzia Aplikatuak II eta Komunikazioa eta Gizartea II moduluetako irakasleak.
3. Erabaki hori, taldean dauden irakasle guztientzat, ebaluazio-saioko aktan dokumentatu beharko da. Tutoreak egin behar du hura, eta ikasleetako bakoitzari dagokion erabakiari babesa ematen dioten irakasleen kopurua adierazi behar du.
4. Halaber, ikasle bakoitzeko txosten bat egin behar da, eta bertan adierazi behar da zergatik pentsatzen den ikasleak lortu dituela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak eta eskuratu dituela DBHko etapari dagozkion gaitasunak. Iritzi positiboa duten irakasle-taldeko kide guztiek sinatu behar dute txostena, eta ikastetxeko zuzendariak berretsi behar du. Banakako txostena ikaslearen espedienteari erantsiko zaio, eta Hezkuntza Ikuskaritzari kopia bat emango zaio, ikastaroen azken aktekin batera. (2016/01/23ko jarraibideak)





FFP

# Eskerrik asko

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroak 27

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA  
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Formación Profesional



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EDUCACIÓN, CULTURA  
Y DEPORTE



Europako Gizarte Funtza  
“EGIF-ek zure etorkizunean inbertitzen du”